

BETEKIZUNAK ETA DOKUMENTAZIOA:

Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bidez eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko deialdia ireki da. 2021eko [abenduaren 10eko EHAAn](#) argitaratu zen.

Bete beharreko baldintzak:

- EAEn izatea egoitza. Edo Euskadin dagoen edo Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena duen enpresa batean lan egitea.
- Egiaztatu nahi diren kompetentzia profesionalekin zerikusia duen lan-esperientzia edo prestakuntza izatea:
 - a) Lan-esperientziaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 15 urteetan, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia justifikatzea eta, gutxienez, lan egindako 2.000 ordu. I. mailako kompetentzia-ataletarako, 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, eta, gutxienez, lan egindako 1.200 ordu.
 - b) Prestakuntzaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 10 urteetan, gutxienez 300 orduko prestakuntza justifikatzea. I. mailako kompetentzia-ataletarako, gutxienez 200 ordu eskatuko dira. Egiaztatu nahi den kompetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluek iraupen laburragoa dutenean, modulu horietan ezarritako ordu kopurua egiaztatu beharko da.

Aurkeztu beharreko dokumentuak. (Jatorrizkoa eta kopia)

- Errolda-ziurtagiria edo Euskadin lan zentroa duen enpresa batean lan egiten duzula adierazten den ziurtagiria.
- NAN edo AIZ.
- Izena emateko eskaera, [IV. ERANSKINA](#).
- [Lanbide eta prestakuntza historia](#).
- **Lan-esperientziaren justifikazioa:**

Derrigorrez aurkeztu beharko dokumentazioa:

-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria (lan-bizitzaren agiria).

Eta islatutako enpresetan egindako eginkizunak justifikatzeko ondorengo dokumentu bat edo batzuk:

- a) [Enpresaren egiaztagiria](#) eskatzailearen lanbide esperientzia.
- b) [Aitorpen zinegilea](#) norberaren konturako langilea.
- c) [Bolondres-en edo bekadunen lan zertifikatua](#).
- d) [Aitorpen zinegilea](#).
- e) Oharra: b), c), d) eta e) proposaturiko dokumentuak dira. Desberdinak izan daitezke baina beti eduki osoa errespetatuz.

Oso GARRANTZITSUA aurreko dokumentuak betetzean: Lanbide Kualifikazioetarako onartutako lanpostuak. [VII. ERANSKINA](#).

- **Prestakuntza ez-formalaren justifikazioa:**
Eskatutako kompetentzia-ataletan gutxienerako prestakuntza-orduak dituela egiaztatzen duten agirien bidez egingo da, eta **honako hauek jasoko dira bertan:** edukiak, prestakuntza-orduak, prestakuntza eman zuen erakundea, prestakuntza egin zen aldia eta gainditua, positiboki ebaluatua edo aprobetxamenduz egina izan dela egiaztatzen duen adierazpen formala.

EZINBESTEKOA DA DOKUMENTAZIO GUZTIA AURKEZTEA IZENA EMATEKO UNEAN.